Samiela

Kaixo guraso:

Datorren ikasturte hasierako argibide batzuk ematera gatozkizue.

Irailean osasun egoera honetan aurkitzen bagara/ osasun egoerak okerrera egiten ez badu, Hezkuntza Sailaren esanetan , ikastetxera normaltasunez itzuliko gara. Hezkuntza-jardueran segurtasun eta osasun-neurri batzuei eutsiko zaie, betiere Osasun Saileko agintarien jarraibideei jarraituz:

- Eskuen higienea.
- Garbiketa, desinfekzioa eta aireztapena.
- Kontaktu kopurua murriztea.

Azpimarratu beharra dago eskolara egunero bertaratzen diren lagun guztiek ondoko sintoma hauetako batzuen agerpena zaindu beharko dutela: 37 gradutik gorako sukarra, eztul idorra, eztarriko mina, arnasa hartzeko zailtasuna eta usainik edo dastamenik ez izatea. Horrelakorik sumatuz gero, etxean gelditu eta beren Osasun Zentrora deitu beharko dute.

• **IKASTURTE HASIERA:**

- Ikasturtea irailaren 1ean, asteartea, hasiko da.
- Ikasturte hasierako batzarra irailaren 1ean, arratsaldeko 18:00etan izango da.
- Bilerara etortzea ezinezkoa baduzue, ikastetxean aditzera eman.

**GARRANTZITSUA da batzarrera etortzea jarraitu behar den protokoloa azaltzeko eta zuen kezkak argitzeko.** Haur gabe etortzea eskatzen dizuegu.

Zuzendaritza taldea

San Miguel 7, 20830 Mutriku ☏943603195 Fax: 943603023 zuzendaritza@samiela.eus www.samiela.eus